

Bildu eskola publikora



MIKEL BASABE KORTABARRIA
IRAKASLEA

Espainiako Estatuko Hezkuntza lege berria onartu zuten egunean, EAJk eta Junts per Cat-ek, biek elkarrekin, zuzenketa bat aurkeztu zuten. Helburua, eskola publikoaren garrantzia urardotzea eta eskola kontzertatua segurtatzea. Zirt edo zarteko zuzenketa zen: egunean aurkeztu eta egunean bozkatu. Berehala egin ziren bloke bi. Ezkerrekoan, eskola publikoa indartzearen alde, PSOE, Podemos, ERC, CUP, Más País, BNG eta Nueva Canarias: 174 boto. Eskumakoan, eskola publikoa indartzearen kontra, proposatzaile biak gehi PP, Vox, Ciudadanos, UPN, Coalición Canaria eta PRC: 170 boto. Abstentzioan, Teruel Existeko bakararra.

Munduko edozein txokotan bezala, ezkerre publikotasunaren alde (baita hezkuntzan ere), eskuina azpikontrazioaren alde. Tira, mundu guztia ken Euskal Herria, hemen ezkerreko sektore batek pribatuaren alde egiten jarraitzen baitu, bakar-bakarrik hezkuntzarako bada ere.

Zenbakiak horrela, EH Bilduren bost botoak erabakigarriak ziren: haien esku, zuzenketak aurrera egitea. Blokeetako

EH Bilduren bost botoak
erabakigarriak ziren:
haien esku, zuzenketak
aurrera egitea.
Blokeetako partaideen
zerrenda ikusita gezurra
badirudi ere, bazegoen
zalantza egiterik

partaideen zerrenda ikusita gezurra badirudi ere, bazegoen zalantza egiterik bost diputatuek zer bozkatuko ote zuten.

Proposamenaren alde eginez gero, lege berritik ezabatuta geratuko zen administrazioak “plaza publikoen eskaintza nahikoaren bidez” segurtatu behar duela hezkuntzarako eskubidea.

Legetik ezabatuko zen segregazioaren kontrako asmoa, honako hau kenduta: “Nolanahi ere, gizarte-kohesioaren helburua lortu nahi da, bai eta ikasleen heterogeneotasuna hezkuntza-auke-

ratzat hartzea ere”. Segregazioarekin amaitzea zergatik ote da batzuentzat arazo?

Honako hau ere ezabatuko zuten: “Hezkuntza-administrazioek titulartasun publikoko ikastetxeen sarean gero eta ikaspostu gehiago sortzea sustatuko dute”. Negozioaren kontrakoa, agian?

Eskuin guztiek gura zuten hezkuntza-legea aldatu, ez zezan gehiago esan administrazioek ziurtatu behar dutela “behar adina plaza publiko” badaoela. Haien ustetan, administrazioek ziurtatu behar dute “behar adina plaza publiko nahiz hezkuntzaren zerbitzu publikoa bermatzen duten plazak” badaudela, eskola kontzertatua publikoaren parean jarrita.

Zorionez, Bilduk ezezkoa eman zion eskola kontzertatuaren aldeko eta hezkuntza publikoaren kontrako proposamenari, eta ez da legean jaso. Bilduk diot, ez EH Bilduk, Aralarreko militante izaniko diputatua abstenitu egin baitzen, Teruelgoarekin batera.

Balioko ahal du herri honetako ezker guztiak has daitezen publikoaren aldeko defentsan... baita hezkuntzan ere. ●

